



Lazarragaren eskuizkribuko zenbait aditz trinko

Borja Ariztimuño

► **To cite this version:**

| Borja Ariztimuño. Lazarragaren eskuizkribuko zenbait aditz trinko. 2006. <artxibo-00134386>

HAL Id: artxibo-00134386

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00134386>

Submitted on 1 Mar 2007

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

LAZARRAGAREN ESKUIZKRIBUKO ZENBAIT ADITZ TRINKO*

Borja Ariztimuño López
Euskal Filologia ikaslea
UPV-EHU,
2006-XII-29

aurkibidea¹

Sarrera	2
EDUKI	4 14-15
EGON	3 14
EKARRI	8 18
EKIN	12 20
EMAN	11 20
ENTZUN	9 19
ERABILI	9 19
ERAKUTSI	5 16
ERATZAN	10 19
EROAN	10 19
ESAN	7 17-18
ETORRI	6 16-17
ETZAN	10 19
EUTSI	11 20
EZAGUTU	12 20
EZARRI	12 20
IBILI	8 18
IDOKI	13 20
*IO	11 19
IKUSI	5 16
IPINI	10 19
IRAKATSI	13 20
IRITZI	6 16
IRTEN	13 20
IRUDI	12 20
IZAN	4-5 15
JAKIN	9 18
JARRI	12 20
JIN	11 20
JOAN	7 17
ON IRITZI	6 16
Ondorioak	13
Bibliografia	21

* Lan hau Euskal Filologiako lehen mailan egin nuena da (zenbait zuzenketekin), Euskal Testuak deritzon ikasgaia gainditzeko. Hortaz, barka iezazkidazue aurkituko dituzuen hutsak.

Esker zorretan naiz eta eskertu nahi diet: Henrike Knörr irakasleari bere iradokizun eta zuzenketengatik, eta Ekaitz Santazilia ikaskideari bere adiskidetasun eta laguntzagatik. Eta lan hau amaitu artean jasan behar izan ninduten guztiei.

¹ Lehen zenbakia adizki taulei dagokie, bigarrena bildutako adibideen taulei.

Sarrera

Eskuizkribu hau Borja Aginagalde historialariak aurkitu zuen Madrilan, Gipuzkoako Diputazioak erosi, eta 2004ko otsailaren 18an aurkeztu zuten. Aurkikuntza garrantzitsua izan da euskal testuen historian eta, gauza asko azterkizun dauden arren, nik neure hondar aletxo eman nahi nuke lan xume honekin, gaizki dagoena zuzen diezadaten eta ondo dagoena erabil dadin.

Joan Perez de Lazarraga 1548. urte inguruan jaio omen zen, ez dakigu ziur, eta 1605eko apirilaren lauan zendu. Lehenagotik ere ezaguna zen haren familiaren genealogia zuhaitza eta beste idazkiren bat utzi zuelako, baina guztiak erdaraz. Eleberria eta olerki sorta hau 18 urte inguru zituelarik idatzi zituela pentsa dezakegu, berak dioenez: “*oy oraingano ez nax ni eldu / oy bada oguei urtean [...] edola bere urten artean / oqueta amarr urtean / neuronec ala equin gura dot / biçi al baninz artean [...] oy onegaiti ychadon begui / dozenaxe bat urtean*”.

Azken hiru orrialdeak besteren batek idatziak ez ote diren ere aipatu dute, baina nik ez dut hori kontuan hartu, hiruzpalau adizki besterik ez baititut hartu orrialde horietarik, eta adizkiek berek baitute garrantzia, ez norik idatzi zituen zehazki jakiteak.

Jarraitutako irizpideak honako hauek izan dira:

Adizki trinko hutsak sailkatzea zen nire asmoa eta, beraz, kanpoan utzi ditut **edun*, **eradun*, **edin*, **ezan* eta *izan* errodon aditz laguntzaileak, bai eta ohitura adierazteko *joan* eta *eroanen* adizkiak, bizkaierazko *etsi* (aditz laguntzaile gisa) eta aditz parafasietan erabilitakoak. Halaber, alde batera utzi dut *egin* aditz osoa, agerpen gehienak aditz laguntzaile gisa edo parafasietan direlako, eta uste baitut aparteko azterketa sakonagoa merezi duela.

Orrialdeen zenbakitzean interneteko *Klasikoen Gordailuko* edizio elektronikoari jarraitzea erabaki dut, baina izendatzea aldatuz, adib.: *9 or. aur.* = 9, eta *9.or. atz.* = 9v.

Grafiari gagozkiola, garaiko ahoskera nolakoa zen aztertzen saiatu gabe, honela egokitu dut: *j>j* beti, *[j]* ahoskerarekin; *ch>tx* beti; *c,qu>k* beti; *ç>z* beti, salbu: *>tz*, *ibili* aditzaren *-tza* pluralgilea, *entzun*, *er(e)itzi* eta *e(ra)tzan* aditz erroak, *nintzan/banintz*.

Izan ere, *x* (*x*) eta *tx* (*ch*) bereizten ditu bakarrik, ez ordea *z/tz* (*z* zein *ç*) eta *s/ts* (*s*).

Bestalde, Lazarraga eta bere garaikoen sisteman ‘zu’ (dagozkion morfemekin batera) bigarren pertsona plurala zein errespetuzko singularra izan zitekeenez, gaurko ‘zu’ zein ‘zuek’ pertsonen baliokidetzat hartu behar da, nahiz eta neure oharretan singularra besterik ez aipatu.

Azkenik, adizkien sailkapena euren forma kontuan harturik egin dut, Euskaltzaindiaren taulak eredu, esanahi bereziak edo arkaikoak ondoren azalduz (adib.: *leukaela* alegiazko gisa sailkatu dut, baina esanahiaz lehenaldi soila da).

EGON

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA	AGINT.
- ahala	nago (nagoan, nagoala) ago (agoan) dago (dagoan, dagoala) zaoz/zaoza/zanode ² (zaozen, zaozela) daoiz/daoza (daozen, daozeela ³) nagozu gagozu	nengoan (nengoala) egoan/zegoan ⁴ (egoala) zeenzen (zeonzela) geenzen eozen (eozela/egotela)	bazeonza ⁵ (legoala)	bego
+ ahala	nagoke daoke zaozke		neonke	beoke

Gaurko bizkaieran erabiltzen diren formak dira nagusi: lehenaldian hirugarren pertsonaren marka, *z-*, galtzen du (salbuespen bakarra aurkitu dut: *zegoan*), subjektu pluralgilea *-z* da (salbuespen birekin: *zanode*, *egotela*) eta *-n* zein *-la* menderagailuekiko lotura hizkia *-a-* da bokal ondoren (*nagoala*) eta *-e-* kontsonante ostean (*zaozela*). Forma bitxi bat ere aurkitu dut (*daozeela*), akatsa edo bizkaiera zaharreko bokal bikoitzetako bat datekeena.

Orainaldiko forma baina agintera esanahia duten formak usu agertzen dira (eta ez aditz honetan soilik); gaur egun bezala *zaoz*-ek bi adiera ditu, orainaldikoa eta ‘egon zaitez’. Deigarri gertatzen den lehen ezaugarria *KE*dun adizkiak dira, alegiazkoetan eta, garai hartan arruntagoa zena, orainaldietan ez eze aginteran ere agertzen baitira. Etorkizun zentzua dutela pentsa genezake, *RSen* bezala, baina badute potentzialtasun puntua ere. Ziur asko bi adierak zituen *ke* morfemak Lazarragaren hizkeran, eta testuinguruak argitzen du esanahi zehatza (batzuetan bi eratara ondo ulertzen bada ere): *nagoke* = ‘egongo naiz’ zein ‘egon naiteke’.

NOR-NORI sailekoak, berriz, *-ki-* artizkirik gabe osatzen ditu (*nagozu*), espero bezala. Bestalde, gaur egun hipotetikoetan eta baldintzetan darabilgun *l-*a indikatiboko lehenaldiak ere har dezakeela dakusagu (*legoala*); cf. *M. B. Etxepareren Kantuian*: “Iaun erregek mezu nenzan ioanengion bertarik / Gaizez *lagola* enzun nuien bana nik ez ogenik”.

² ‘n’ hori ‘o’-aren sudurkaritasuna adierazteko litzateke, Patri Urkizuren (2004) edizioaren arabera: *zaõde*.

³ Eskuizkribuan *eztaoçeela*.

⁴ Eskuizkribuan *baçeogoana*.

⁵ Eskuizkribuan *ezpaçeonça*.

EDUKI

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA	AGINT.
- ahala	daukat/dadukat (daukadan, daukadala) dauko (daukan ⁶) daukazu (daukazun /dadukazun, daukazula) daukezu daukae jaukaat nauko/nauka naukazu (naukazun)	nedukan (neukala /nedukala) eukan/zeukan/ zedukan ⁷ (eukala/zeukala) eukaen nindukazun	(leukala) (leukaela)	beukae
+ ahala			baneukaike	beukaike ⁸

Adizki arruntak dira gehienak. Mendebaleko *daukO*-ren modukoak bi besterik ez (*dauko* eta *nauko*) eta hauetan *A*-dun aldaera ere badugu. Iraganean hirugarren pertsonako *z*- ez du beti galtzen eta *l*-a hipotetiko (*leukala*) zein indikatiboko lehenaldiaren (*leukaela*) marka izan daiteke; hirugarren pertsona plurala sortzeko *e* marka darabil guztietan (*daukae-eukaen-beukae*); honen harira, ‘zu’ eta ‘zuek’ pertsonen ezberdintzea ia hutsa da NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK motakoetan, baina bada salbuespen bat, *daukezu*, izan ere *e* horrek *zuren* pluralgilea dela dirudi, beraz, euskara batuko ‘daukazue’-ren baliokide litzateke. Orainaldiko lehen pertsona singularreko *T > DA* bihurtzen da menderagailuekin elkartzean (*daukat*→*daukadan*). Daukagun hikako adizkian bizkaierako alokutiboko ohiko morfema aldaketa gauzatzen da: *jaukaat* < **djaukaat* < **di**a**u**k**a**a**t* < *daukat*, cf. Michelena (1990: 173-174).

IZAN

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA
- ahala	nax/naz/naiz (naxan, nazala) ax (axan) da (dan, dala) gara (garan ⁹) zara (zarean) dira (direan, direala)	nintzan ¹⁰ zan (zala) (zineala ¹¹) zirean	banintz ¹² baliz bazina (lizala)

⁶ Eskuizkribuan *eztacana*.

⁷ Eskuizkribuan *bazeducan*.

⁸ Eskuizkribuan *beuçaique*.

⁹ Baina “*biçi garean guztioç rrecojiduric*” (49 - ezk. 25). Beraz, espero zitekeen forma ere badarabil, baina laguntzaile gisa.

¹⁰ Indikatibo eta subjuntibo eran darabilen adizkia dugu.

¹¹ Testuingururik gabe ageri zaigunez, ezin dugu jakin aditz laguntzaile edo trinko huts den.

¹² Eskuizkribuan *baninzachez* (Patri Urkizuren aburuz “banintz bezala”).

+ ahala		zatean	(lizateala)
---------	--	--------	-------------

Oso berezia da aditz honen orainaldiko lehen pertsona singularraren kasua, ez baitu forma finkorik: *naiz* giputz-nafarrarekin batera, bizkaierazko *nax* eta *naz* aldaera biak usatzen ditu. Adizki hauetan *-a-* da beti menderagailuekin lotzeko hizkia, bokal zein kontsonante ondoren (*naxan*); batzuetan bi *a* batzean *ea* ematen du (zara + an > *zarean*) bizkaierako arau fonologiko ezagunarengatik, baina bestetan bi *a*-k bat egin eta *a* geratzen da (gara + an > *garan*). *KE*dun formak ez ditu erabiltzen, baina bai horien balioa dutenak (*zatean* = zatekeen; *lizateala* = litzatekeela).

IKUSI - ERAKUTSI

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	AGINTERA
- ahala	dakust ¹³ (dakustan ¹⁴) dakus ¹⁵ (dakusan/dakusen ¹⁶) dakusu ¹⁷ (dakusun) nakusu ¹⁸ (nakusun) (gaakusten ¹⁹) ----- derakuso ²⁰	nekusen ekusen ekusten nengusun	
+ ahala	(dakusken) (dakuskezun)		berakuske

Aditz honen erroari zuzenean lotzen dizkio subjektuaren morfemak (*dakust* eta ez 'dakusat'), eta *s*-ak *z* batekin elkartzean *s* hutsa gelditzen da. Bokal ondoren menderagailuak zuzenean batzen dira eta kontsonanteari lotzean *-a-* da lotura hizkia (*dakustan*), salbuespen batekin (*dakusen*). Bizi-bizirik du Lazarragak *n* osteko ahoskabeak ahostun bihurtzeko araua (*nengusun*). Kasu honetan hirugarren pertsona pluralaren marka *te* da (*gaakusten*, *ekusten*).

ERAKUTSIren adizki trinkoan oso gutxitan erabiltzen dituen arren, orainaldiko lekukoa ikusirik, badakusagu absolutiboaren morfema (*d-*) erroari lotzeko *-e-* hizkia darabilela.

¹³ Baina *bacust*

¹⁴ Eskuizkribuan *dacustanean*

¹⁵ Baina *bacus*

¹⁶ Eskuizkribuan *dacusenean*

¹⁷ Baina *bacusu*

¹⁸ Eskuizkribuan *nacusunean*

¹⁹ Eskuizkribuan *gaacustenac*

²⁰ Eskuizkribuan *baderacuso*

(ON) IRITZI - IRITZI

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA
- ahala	(deretxadan, deretxadala) dereitzut/deretxut (deretxudan) (deretxun, deretxula) (derextala) (dereiztazun ²¹ , derextazula) deretxo ----- eretxa ²² (deretxan)	eretxan (eretxala) ----- eretxan/ereitzan/eritzan ereitzun	baneretxu
+ahala			----- banerexkeo

Aditz honen hiru aldaera erabiltzen ditu adizki trinkoak sortzeko: *eretxi*, *eretizi*, eta *eritzi* (*eretxan/ereitzan/eritzan*). *T > DA* aldaketa betetzen du honetan ere. Bestela, ez du inongo aipamen berezirik merezi, erabiltzen dituen formak espero zitezkeenak dira.

ETORRI

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA	AGINTERA
- ahala	nator dator zatoz datoz jatort zatort iatork	nendorren ²³ (nendorrela) etorren ²⁴ (etorrela) etozen (etozela)	(letozela)	
+ ahala	zatozke		letorket	betorke

Bada aipatzekorik aditz honen gainean. Ahoskabeak *n* ondoren ahostuntzeko jokabidea betetzen du (*nendorren*), bai eta hikako formetan morfema aldaketa ere (*d-ator > i-atork = zatorrek*). Gorago aipatutako *-ki-* gabeko NOR-NORI sailekoak ere darabiltza, baina ezaugarri bitxiekin: *jatort* (datorkit) horretan ikus daitekeen bezala, hikako adizkiei dagokien forma hartzen du, Etxepareren *nyatorqueçu* haren erakoa; *zatort* (zatozkit) adizkian, berriz, bigarren pertsonaren pluralgilea falta du (**zatozt* behar luke). Azkenik, *letorket* (letorkidake) adizkiko *KE* hori, erroaren eta datibo morfemaren artean ipintzen du, euskara batuan ez bezala.

²¹ Eskuizkribuan *dereiztaçuin*.

²² Eskuizkribuan “*çenari erecha Duero*” (sic), ezin jakin zein aldikoa den, baina orainaldia dirudi.

²³ Eskuizkribuan *banendorren*.

²⁴ Eskuizkribuan *etorrena*.

JOAN

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA ²⁵	AGINTERA
- ahala	noa/najoa ²⁶ doa goaz (goazen, goazela) zoaz doaz/doaza	nioean joeala gioanzen ²⁷ joazen (joazela)	balloa lloazen	bioa
+ ahala			lloake	

Oro har *-oa-* da orainaldiko erroa, eta besteetan *-ioa-* edo antzekoa darabil. Eta badirudi lehenaldiko hirugarren pertsonako *j-* ere hortik datorrela (**(z)ioazen>joazen*).

Aldiz, orainaldiko lehen pertsona singularra berezia da, forma ohikoaz gain *najoa* ematen baitu, erroa *-ioa-* barik *-joa-* dela, *n-* ondorengo *a* lotura hizkiak. *Etorri* aditzean ikusi dugun fenomeno bera dela dirudi, alokutiboko morfema bat adizki neutroetara zabaldu dela, gipuzkerako *nijoa*, *dijoa*, etab. bezala.

Horrezaz gain, *-n/-la* menderagailuekiko lotura hizkiak *a* eta *e* dira, bokal eta kontsonante ostean, hurrenez hurren; ez dira bi *a* behin ere asimilatzen (*nioean*, *joeala*).

ESAN

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA	AGINTERA
- ahala	(dasadan, dasadala) (dasazun) (desodan) (desoen)	neson ²⁸ eson ²⁹ esadan		besat <i>zarezt</i>
+ ahala	dasaket dasakezu desakedan desakezue		nesake nesakezu	besakeo

Inoiz aurkitu den ESAN aditzaren adizki trinko multzorik handiena dateke, aldi eta modu konbinaketa gehienetan darabil eta NOR-NORK zein NOR-NORI-NORK sailean. NOR-NORK sailean NOR morfemaren eta erroaren arteko lotura *a* hizkiak egiten duen bitartean, NOR-NORI-NORK sailekoetan (iraganean, alegiazkoetan eta aginteretan bezala) *e-*az baliatzen da (*dasadan <> desodan*).

Forma oso bitxia ere aurkitu dut (*zarezt*), Patri Urkizuren edizioaren arabera 'esadazu' esan nahi duena, baina ziurrenik erro ezberdin batetik sortua.

²⁵ Alegiazko hiru formetan *-lloa-* dugu. Ziurrenik **lloa>*ljoa>lloa*; cf. Michelena (1990: 197).

²⁶ Eskuizkribuan *banoa/banajoa*.

²⁷ Eskuizkribuan *baguioançen*.

²⁸ Eskuizkribuan *nesonean*

²⁹ Eskuizkribuan *baeson*

IBILI

aldia modua	ORAINA	IRAGANA
- ahala	nabil dabil (dabilela) gabiltza (gabiltzaden) zabilz (zabilzen, zabiltzadela) dabilz/dabiltza jabilt	(nenbilela) ebilen (genbilzela) zenbilzen ebilzen

Forma guztiz arruntak darabiltza orokorrean, baina badira aipuren bat merezi dutenak ere. Aditz honetako NOR pluralaren marka ez du finkatua Lazarragak eta, beraz, -z eta -tza tartekatzen ditu etengabe (*dabilz/dabiltza*, *gabiltza* baina *genbilzela*).

Lehenago azaldu dudan beste ezaugarri bat ere ikusten da NOR-NORI saileko adizkian: ez du artizkirik erabiltzen erroaren eta datibo morfemaren artean eta subjektuaren morfemak alokutiboaren forma hartzen du (**j**-a-bil-t = **d**-a-bil-**ki**-t).

EKARRI

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA	AGINT.
- ahala	dakart dakar (dakarren, dakarrela) dakaz dakarte ³⁰	nekarren ³¹ (nekarrela) ekarrela ekarten (ekartela)	(lekarroela)	bekardae
+ahala	(dakarkezula)			

Aditz honetan bada besteetan agertzen ez den ezaugarri bat, hain zuzen NOR plurala, morfema batez (-z) zehazten duela. NOR-NORI-NORK edo NOR-NORK sailekoetan ez du ia inoiz NOR pluralik, baina hemen dugu *dakaz* (dakartza), *dakar + z > dakaz* eman duela. Aldiz, subjektuko hirugarren pertsonaren pluralgilea *e* edo *te* izan daiteke (*ekarten*, *bekardae*).

³⁰ Eskuizkribuan *eztacarte*

³¹ Eskuizkribuan *banecarren*

JAKIN

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	ALEGIA
– ahala	dakit ³² (dakidan) daki ³³ dakite (dakien) dakizu (dakizun ³⁴)	nekian ekian	
+ ahala	dakiket		banekike

Subjektuko hirugarren pertsona plurala *te* edo *e* bidez egiten du (*dakite*, baina *dakien*).

ERABILI

aldia modua	ORAINA	AGINTERA
– ahala	(darabildan) darabil (darabilela) darabilgu darabilte narabil narabilzu	
+ ahala		berabilke

Euskara batuko forma berberak darabiltza (*KE*dun aginterazkoa izan ezik jakina).

ENTZUN

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	AGINTERA
– ahala	dantzu ³⁵ (dantzuan ³⁶) (dantzuzun) nantzuzu	nentzuan ³⁷ gentzuan ³⁸	bentzu

³² Baina *baquit*.

³³ Eta *ezpadaqui*.

³⁴ Subjektua ZUK nahiz ZUEK: “*çegaiti daquiçun çeurrc ecusita ez naxana min бага quexaetan*” ≠ “*ez daquiçunoc jaquin eguiçu*”

³⁵ Eskuizkribuan *badançu*

³⁶ Eskuizkribuan *dançuanean*

³⁷ Eskuizkribuan *nençuanean*

³⁸ Eskuizkribuan *guençuanean*

Ez ditu bereizten NORK singular eta plurala eta, gainontzeko aditzetan bezala, orainaldiko adizkiek agintera edo subjuntibo esanahia har dezakete (*nantzuzu* = ‘entzuten nauzu/entzun nazazu’; *dantzuzun* = ‘entzuten duzun/entzun dezazun’).

ERATZAN - ETZAN

aldia modua	ORAINA	IRAGANA
– ahala	(daratzan ³⁹) (daratzagula) naratzazu ----- (datzan) (zautziden ⁴⁰)	eratzala ----- nentzan

Aditz hauek ez ditu aurrekoak bezain beste erabiltzen, baina nahiko aberatsak direla dirudi eta senaren bidez nahi beste forma atera zitzakeela. Espero zitekeen forma dute ia guztiek eta bitxia den bakarra (*zautziden*) erraz azaldu daiteke: erroa *-tza-* izan ordez *-tzi-* da (‘etzin’ aditza) eta bukaerako *e* hori akats ortografikoa liteke, edo asimilazioz bihurtua (**çauçidanean* > *çauçidenean*).

EROAN

aldia modua	ORAINA	IRAGANA	AGINTERA
– ahala	(daroadala) daroa daroae	neroean ⁴¹ (neroeala) eroan	
+ ahala			beroake

Gutxitan erabiltzen du aditz nagusi gisa, baina bai askotan laguntzaile bezala (nik ez ditut kasu horiek kontuan hartu), adizki aberastasuna erakutsiz. Hemen ere $a + a > ea$ araua betetzen du: *n-e-roa-an > *neroean*.

IPINI

aldia modua	ORAINA
– ahala	(dafinela) dafinzu (nafinela) nafinzu jafindazu (difinzen)
+ ahala	dafinket

³⁹ Eskuizkribuan *daraçanean*

⁴⁰ Eskuizkribuan *çauçidenean*

⁴¹ Eskuizkribuan *baneroean*

IFINI da Lazarragarentzat, hori jakinda ez du ezer apartekorik *jafindazu* adizkia izan ezik. Agintera moduan erabiltzen duen orainaldiko adizkia da, NOR-NORI-NORK sailekoa, eta badirudi alokutibo forma hartu duela (**dafindazu > *diafindazu > jafindazu*).

*IO

aldia modua	ORAINA
– ahala	dio (dioan) diostazu (diosudan)

Forma guztiak ezagunak dira, ez du ezer aipatzeko.

JIN (*iragankorra: eman*)

aldia modua	ORAINA
– ahala	(dindala) (digun)

EMAN aditzaren ordezeko inperatiboa.

EMAN

aldia modua	ORAINA	ALEGIA
– ahala	demala	lemala

NOR-NORI-NORK sailekoak behar lukete biek, testuinguruaren arabera, baina ez dute datiboaren markarik: *demala* = ‘eman dezala’, berez **demola* (‘eman diezaiola’) behar luke Lazarragaren sistemari jarraiki (cfr. *desodan* = ‘esaten diodan’); *lemala* adizkiaren kasuan **lemola* behar luke datiboarekin komunztatzeke, baina beharbada berak ‘eman lezala’ nahi zuen adierazi, besterik gabe.

EUTSI

aldia modua	IRAGANA
– ahala	eusten (eustela)

Aditz laguntzaile bezala, ezinbestean, oso aberatsa da, baina trinko huts gisa ('eutsi' adiera arruntarekin) oso urria. Aipatu daitekeen gauza bakarra NORK plurala *te* morfemaz egiten duela (\emptyset -*e-u(t)s-te-n*), bestela 'eutsen' emango bailuke (\emptyset -*e-uts-e-n*).

EZAGUTU

aldia modua	ORAINA
- ahala	nazauzu ⁴² (dazauen)

Aditz erroa *-zau-* da (*ezautu/ezaun*), eta subjektuko hirugarren pertsonaren pluralgilea *e* (*dazauen* = dazaguten). Garai hartan aditz honen adizki trinkoak arruntak eta ugariak behar zuten izan, baina Lazarragak ez dizkigu adibide gehiago utzi.

IRUDI

aldia modua	ORAINA	IRAGANA
- ahala	dirudizu	zirudien

Aurrekoaz esan dudana errepika nezake, XVI. mendean paradigma aberatsa osatuko zuen aditz honek, oraindik ere arrunta izaki, baina adibide gutxi ageri dira eskuizkribuan. NORK hirugarren pertsonaren pluralgilea *e* da honetan ere.

JARRI - EZARRI

aldia modua	ORAINA	ALEGIA
- ahala	zarriz	balezarzue

Adizki bana, aditz bakoitzeko. Lehena guztiz arrunta liteke, baina *balezarzue* adizkiak aberastasuna salatzen du, oso arraroa bailizateke alegiazko formak dituen aditz bat honek dirudien bezain erabilera mugatukoa izatea.

EDEKI (*kendu*)

aldia modua	ALEGIA
- ahala	lekidan ⁴³

⁴² Eskuizkribuan *banaçauçu*

⁴³ Eskuizkribuan *lequidanari*

Forma bakarra, Patri Urkizuren edizioak diotenari kasu eginik sartu dudana. Hark *ekin* aditzat hartu arren, badirudi, esanahiaren alde, *edeki* behar duela izan.

Esaldi osoa aztertzea merezi du, *amorantia(n) lequidanari atera neio beguiac*, esanahia hurrengoa liteke: ‘amorantea ken liezadanari aterako nizkioke begiak’.

IDOKI

aldia modua	ORAINA
– ahala	nidokazu

Defektiboa guztiz, “asmatutako” adizkia ere izan liteke. ez duelako lotura hizkirik, zeren eta *-dok-* erroa erabili beharrean (**nadokazu*), ‘idok-’ aditz oina hartzen baitu.

IRAKATSI

aldia modua	ORAINA
– ahala	dirakasudan

Aurreko adizkiari esandakoak honentzat ere balio du; ‘irakas-’ du erro, s + zu = su ematen du (‘ikusi’ aditzean bezala), eta $T > DA$ aldaketa gauzatzen du.

IRTEN

aldia modua	IRAGANA
– ahala	nirtean ⁴⁴

Aipagarri bakarra erroko *i-* hori, ez duela galtzen amaierako *-na* legez.

ONDORIOAK LABURBILDURIK

Badira zenbait ezaugarri ia aditz guztietan betetzen direnak, adibidez: erroaren eta *-n* zein *-la* menderagailuen arteko lotura hizkia *-e-* da kontsonante ostean, eta *-a-* bokal ondoren; pertsona morfemen atzetik ordea, egun bezala, ez du lotura hizkirik behar. Batzuetan *-an/-ala* erabiltzen ditu kasu guztietan, $a+a > ea$ araua beteaz edo asimilatuz. Subjektuko hirugarren pertsona plurala sortzeko *e* zein *te* darabiltza, arau finkorik gabe, baina *e* da nagusi ezbairik gabe, eta orokorrean ez du NOR-NORI-NORK edo NOR-NORK saileko NOR pluralik.

Hipotetikoko edo baldintzako *l-* marka indikatiboko iraganetan ere darabil.

Ez du *-ki-* artizkia erabiltzen NOR aditzak NOR-NORI bezala jokatzeko eta ez ditu ZU eta ZUEK pertsonak ezberdintzen, beti gaurko ZU bezala jokatzen ditu aditzak (salbuespen bakarra apika: *daukezu* \neq *daukazu*).

⁴⁴ Eskuizkribuan *nirteanean*

Azkenik, *KE*dun formak ugariak dira, geroaldi zein potentzialtasun zentzuarekin –muga zehazteke–, baina agidanez aginterazkoetan etorkizun zentzua du beti, eta alegiazkoetan ahalezkoarena.

Hortaz gain, badirudi nahi adina forma sortzeko eta egokiro erabiltzeko sena bizi-bizirik zuela Lazarragak, eta horrexek liluratu nau gehien.

Hala eta guztiz ere nire asmoa, batez ere, adizki gehienak biltzea eta sailkatzea zen, tauletan ezarri eta gerora bestek errazkiago aztertzeke aukera izan dezaten.

Bildutako adibideen taulak

EGON

kokapena	saila	esaldia adizkia
5 – 12	hura	ycasiric nola egoan Silvero gaxoric
5v – 24	zu	Donzellea çegati çaoz enegaz enojaduric
7 – 5	haiek	elduric Sirena eta Silvia eoçen lecuan
9v – 19	hura	ecusiric bada Silveroc egoala utra urrun bere errirean
10v – 18	hura	aynbat aseguin artu dot nun dagoan ycasiaz
10v – 23	guk-zuri	erregutan gagoçu
11v – 5	hura	deustae esan dagoala
12 – 9	ni	ni nun ete nago lo ete naç ala yraçarriric nago
12 – 10	ni	neure Sirenaen aldean nagoala
12 – 17	hura	ene bioça Doridogan dago
12v – 20	haiek	onela lauac eoçela desmayaduric
13v – 10	zu	belaurico jarric espiluonetara beguira çaoçela
14v – 8	zu	nola açartu çara çaoçen lecura etorten
14v – 22	haiek	çenay escuac ascaetan egotela Silvero eta Dorido
17v – 2	zu	Linda damachoa nola çanode beti pensamentuan galçaen çaytue
20 – 9	hura	oy arren jauna yxilic bego
20 – 24	zu	claruxeago berva eguiçu edo çaoza yxilic
20v – 4	ni	ezin neonque yxilic
20v – 10	zu	çeure eseco portaleetan oyta çeonçen jarriric
20v – 13	zu	ez neben pensamenturic dama galanta an çeonçela
20v – 23	ni	Catelinacho nola nagoan amore minez gaxoric
27 – 10 1	haiek	Esan badaguie eztaoçela
27 – esk. 26	ni	neurau exilic nengoala
27v – 13 1	haiek	ene senideac libre daoça
28 – ezk. 12	hura	beoque beti tristeric
30 – esk. 13	ni-zuri	mesede baten esque nagoçu
36 – esk. 5 4	hi	ezta munduan morroeric norrc desaquedan nola ago
43 – ezk. 5	hura	legoala ballesta bat armaetan
39v – esk. 2	hi	Donostiaco San Françiscuan agoan giçon soldadua
43 – esk. 13	ni	tristea nengoan yru yleco egunetan
45 – 2	haiek	Ynfernuetan daoz çuençat grilluac
45 – 24	gu	eldu ez çara guc gueonçen lecuan
46 – esk. 2	hura	Ene bioça baçegoana colpeaz maltrataduric
47 – esk. 20 2	ni	eçin nagoque arabaga
47v – ezk. 19	zu	osaba jaunaz ezpaçeonça
48 – 15	hura	erraz daoque Araba lutoz jançiric
48 – 23	zu	erraz çaozque oy ondo gaztigaturic
48 – 12	haiek	daoçen abisaduric

EDUKI

kokapena	saila	esaldia adizkia
5v – 4	hark-hura	çegati leucala esperança andia

6 – 6	hark-hura	Silveroc escuetan eucan arpea
7 – 25	zuk-ni	çeuire onetan naucaçu
9 – 20	zuk-hura	esaitasun parebaguea çegaiti nigaz daucaçu
11 – 5	zuk-hura	laster osatu çatezqueala daucaçun gaxaesun orretaric
11 – 10	hark-hura	negarez beteric bere beguia ceucala
11 – esk.94 1	hark-hura	guiçon damaogaz ezaucana conbersaçioa
11v – 1	zuk-hura	ondo uste dot Sirena daucaçula adituric
11v – 19	hark-hura	bere beguiac negaretan eucala
12v – 22	hark-ni	Silbiac catigaturic nauco
17v – 24	zuk-hura	arren esaçu çure pensamentuetan çer daducaçun
22v – ezk. 19	nik-hura	çuretaco nic daucadan guztia
23v – 10	nik-hura	oy bada bere borondateau daducat utra osoric
25v – 5	haiek-haiek	pensamentuac leucaela dolorez manteniduric
28 – ezk. 7	hark-hura	bere laztanaz çe beuçaique secula fantasiaric
30 – ezk. 17	nik-hura	pensamentuau daucadala çuregan enclabaduric
30 – esk. 3	hark-ni	piedadeac secula comiençuric linda damea erruqui nauca
30 – esk. 32	nik-hura	conjuro gogorr pare бага bat daucat ordenaduric
31 – 2 3	haiek-hura	onegaz linda guztioç beucaae contu
39 – ezk.2 7	nik-hura	podere baneucaique tenplaçeco
42 – 15	hark-hura	badanic bere bertati dauco cargutan aziendea
43v – ezk. 19	nik-hura	borondate jaucaat al badaguit salbaetan
43v – esk. 11	nik-hura	pensamentuau ez neucala nic agan ocupaduric
43v – esk.14	nik-hura	aen podere andiagaz ez neducala conturic
44 – esk. 2	nik-hura	Nai equion nic aren contra oy ez neducan quexaric
45 – 16	zuk-ni	ez ninducaçun contuan ez gueyago
45 – esk. 7	hark-hura	tafetan gorriz oy baçeducan beguiac reboçaduric
45v – 20	hark-hura	ene gauçaric ez çeucala buruan
45v – 28	hark-hura	oy deboçio guchi çeucan tenpluan
47v – ezk. 4	zuek-hura	ezcondu gura baldin badoçu asco dauquezu senarric
48v – ezk. 32	haiek-hura	yçurridunac asco eucaen llanturic
49 – ezk. 17	haiek-hura	çerren ez daucac nun paseadu caleric

IZAN

kokapena	saila	esaldia adizkia
1 – 21	hura	ain andia dan azquero
6 – 2	zu	flordelisea çara çu
6 – 18	hura	ez çatean miracuru an yla
7 – 18	ni	amaren seme bacoça naiz ta
8 – 3	hura	euren biajera çeña çan Ytaliaco çitudine batera
8 – 15	hura	fortunearen esai çala
9v – 18	haiek	nun çirean utra arrçai aberasac
10v – 19	haiek	munduan direan riqueza guztiaç emun baleustae
10v – 26	ni	ni nazala Marsellaco naturale
10v – 27	hura	eta ene yçena da
11v – 3	hura	liçateala parte niri erioçea laster emayteco
12 – 9	ni	ni nun ete nago lo ete naç ala yraçarriric nago
12v – 2	zu	medeçinea çu çarean guero
12v – 15	hi	desdicheonen causea y axan azquero
12v – 24	ni	Doridogaiti gaxo nax
13 – 25	haiek	ecusi çeben salbajeac direala
13v – M6 1	ni	Beguiratu бага çuc ny nor naxan
15 – 18	gu	Oçaetaço bandereagaz oyta gu gara etorri
15v – ezk.13	haiek	oy ainbayt dira ederrac
15bis – 17	zu	[...] çineala
17v – 17	ni	çure mutil ninçan gura çenduquez

23 – 14	hura	Çerren dioçu secretoric oy andraetan ez dala
27v – 12 1	ni	jaiorean niñan desdichadea
33 – 3	zu	ascota çu baçina pederrnala
33 – 4	ni	edo ni sufriçeco baninzachez
36 – ezk.2 5	hi	oraingaño gaztea ax
39v – ezk. 10	hura	errespuesta emayten çidan liçala nesca onestu
41 – esk. 8	hura	lenaengo ta guero juzgadu bestegan baliz tacharic
50v – esk. 22	gu	vioc ondo ycango gara mundan garan artean

IKUSI - ERAKUTSI

kokapena	saila	esaldia adizkia
6 – 3	zuk-hura	ene penea dacusun guero
9 – 2	haiek-hura	norc bere bioçean eucan tristezea ecusten
12 – 8	hark-hura	espeçialmente Silveroc Sirena ecusen orduan
13v – 10	zuk-hura	dacusqueçun gauçagayti ez beguioc (...) quendu
14v – M12 1	hark-hura	Çegaiti dacusan nola dagoan
16 – 9	nik-hura	çure beguioc necusenean
21v – 5	haiek-gu	ez dot ardura lagunic gaaçustenac (...)
26v – esk.2 3	hark-hura	bacus munduac çure balorea
27 – esk. 19	nik-hura	nic ez nebela pensaetan guero necusen gauçæetan
27v – 20 1	nik-hura	neure araguioc dacustanean
27v – 17 1	nik-hura	(...) dacust ditudala neure urrte dulçæac castaetan
28v – 5	hark-hura	bere laztana dacusenean
30v – 20	zuk-ni	beguioz nacusunean
31 – 3 4	zuk-hura	bacusu ene fedea firmea dana
40v – ezk. 3	hark-hura	mundu guztiac dacus dacusuna
42v – esk. 1	nik-hura	Claramente dacustan guero galçaita libertadea
42v – esk. 9	nik-hura	gauça fortiça oy dana bacust
43 – ezk. 18	hik-hura	eurc dacusquen erietan ygo neben
44 – esk. 17	zuk-ni	amorea nayz eta nacusu baldin badoçu beguiric
45 – 8	zuk-ni	oyta nengusun orduan
49 – esk. 15	zuk-hura	çerren dacusu oy asco profeçiaric
28 – ezk. 11	hark-hari-hura	crueldaderic baderacuso
28v – 13	hark-hura	gabaz egunaz çe beracusque secula cobardiaric

ON IRITZI - IRITZI

kokapena	saila	esaldia adizkia
7 – 16	nik-zuri	nic çuri on dereiçut
8v – 12	hark-hari	sirenac Doristeori on erechan
9 – 3	hark-hari	Silveroc çeñac ecusiric Sirenac besteri on erechala
11 – 2	hark-zuri	donçella bateq çenari derechan Silvia derechula utra on
11 – 4	hark-zuri	ançitu Sirena on ez derechun azquero
11 – 19	hark-niri	deguioçula oy Silverori on derextala aguindu
12 – 16	nik-zuri	nic ezterechut on çuri bapere bano geiago
12 – 22	nik-hari	eçin ançitu neydi anybat denpora on derechadan gauçæa
12 – 25	nik-zuri	acorda çatez çeyn on derechudan
12v – 4	nik-hari	gurago dot Silverori on derechadala yl
17 – 7	zuk-niri	Aren eguia bat çarezt on dereiztaçuin ala ez
17v – 16	nik-zuri	esaçu laztan ninduquezun on banerechu
25 – albo12 3	zuk-niri	çuc bere niri derextaçula an escatuco nachaçu
26 – 5	hark-hari	Donçelleorri on derecho
9v – 17	hari-hura	çenari erecha Duero
9v – 22	hari-hura	Ascanio erechan guiçon aberaspategaz

10 – 25	hari-hura	Silvero derechan arçai batec
20v – 19	zuri-hura	ytaundu nagon poridadean beste donzella bateri nola ereïçun
25 – 4	hari-hura	donceleari lora eriçan
25 – 7	hark-hura	donçelleari Lora ereyçan
44v – ezk. 2	nik-hari	Mesedea ta confirmadu banerexqueo oy leguiola umilladu

ETORRI

kokapena	saila	esaldia adizkia
6v – 13	zu-niri	contentu uste neben orrduan oy zatort discontentua
10v – 17	ni	neure erriari ychiric nator aen esque
11v – 21	zu	oi Sirena çegaiti çatoz oy eta ene açean
12 – 20	zu	çatoz nigana
12v – 28	hura	aditu even os andi bat canputi etorrena
13 – 5	haiek	eben datoz salbaje andi bi
13 – 18	hura	aditu even cantaetaz etorrela odeietati figura eder bat
13 – 20	haiek	uste even çe Sirena eta Silbia eroan evenac letoçela
13v – 20	haiek	aditu even etoçela jente asco deadarrez
13v – 21	haiek	çeynçuen erditan etoçen Sirena eta Silvia
20v – esk. 7	hura	valez galteric asco iatorc neure beares
21 – 20	hura	arren betorque ebeti
25v – albo3 3	zu	jentil onbrea ona çatozque gura banoçu gozadu
27 – esk. 1	ni	Egun batean nendorrela bide estrecho batean
41v – esk. 6	niri-hura	oy eta bardin onela bada andia jatorrt caltea
28v – albo25 1	hura	Orain datorr fraile malmaz arro bat
50v – ezk. 19	ni	[...]sigarica banendorren
42v – ezk. 23	hura-niri	oy orain ez letorquet ondo arereanic jastea

JOAN

kokapena	saila	esaldia adizkia
7 – 6	haiek	Silverogaz joaçen musicoac
9v – 7	ni	ni onerean banoa bere
10 – 20	hura	Silvero joeala ekian lekuetati
10 – 22	haiek	ytaundu eusten nora lloaçen
10 – 24	gu	eçe guc goaçela Dueroco riberara
10v – 4	gu	eta ala ene lagunau eta ni goaç ara
10v – 21	gu	goaçen guztioç batera
11 – esk.94 3	hura	gusdu anditan bioa porra batez arraitan
11v – 15	hura	nigaç eçin ynor lloaque
11v – 26	zu	Doristeo çegaiti çoaz çeurori bada galduric
12 – 6	haiek	nor bere ardiaquin joaçela
29 – albo17 4	gu	arrtu ninduan escurean baguioaçen arerean
43 – ezk. 13	ni	ni banajoa salsearen aurrquietan
43v – ezk. 11	hura	ysasaldea beera doa bere buruaz bervaetan
43v – esk.15	ni	seguro ustez ez nioean bapere prebeniduric
44v – esk. 23	haiek	galay galantoc ara doaz eguiten erromeria
44v – esk. 27	haiek	dama galantac ara doaç galanti adornaduac
48v – ezk. 18	hura	ara balloa giçonic
50v – esk. 24	gu	paradisu ereinuan mundutic goaçenean

ESAN

kokapena	saila	esaldia adizkia
4 – 22	zuk-hura	çuc erraz dasaqueçu
14 – albo62 1	hark-hari-hura	semeac baeson ni aseguin dot
17 – 6	zuk-niri-hura	Aren eguia bat çarezt
18 – 23	nik-hura	jente noblea eçin nesaque bearr deustaçu parcatu
20 – 10	hark-niri-hura	çe besat orrelacoric
20 – 27	nik-zuri-hura	nic claruago banesaqueçu

21v – 15	haiek-zuri-hura	uste badoçu (...) desaqueçue la bella mal maridada
23 – 10	zuk-hura	oy ez dasaçun bildur nax
27 – esk. 27	hark-niri-hura	Neurau exilic nengoala berac esadan berrbea
27 – esk. 29	nik-hura	ongui etorri çareala errazoa da dasadala
27v – 24	nik-hura	oy lenaengo abantajea dasadan çaoz exilic
28v – 7	hark-hari-hura	secula barriz çe besaqueo besteren abantajeric
30 – esk. 20	nik-hari-hura	secula ondo arçaiten eztau oy nic desodan gauçaric
36 – esk.5 4	hark-niri-hura	ezta munduan morroeric norrc desaquedan nola ago
45 – 28	hark-haiei-hura	oy oy au desoen puntuan acorda çatez
47 – ezk. 17	nik-hura	berbaric asco erraz dasaquet çuc ala meresçiduric
47v–esk.28 1	nik-hari-hura	Nic au onela nesonean

IBILI

kokapena	saila	esaldia adizkia
8 – 22	hura	Doristeo çaldun gazte bat ebilen penaz beteric
8v – 3	hura	Sirena bere ainbeste dabil
12 – 25	zu	eta bay nola çabilçen enganaduric
13v – M10 1	haiek	ene araguioc ycara dabilz
17 – 11	zu	ez çabilç ene gogoan ez
23 – 25	ni	oyta bildurrac ycara nabil
24v – 15	gu	oetan acabaduric amoreata bioc gabilça
25 – 19	haiek	eurac biac oy ebilçen bapere бага lagunic
26v – ezk. 5	gu	Guztioc guenbilçela
28v – albo28 1	hura	conbenturic conbentu dabilela
32v – 12 5	gu	çe gabilçaden beti puntuetan
39 – ezk.2 2	ni	bacochic nenbilela yllunetan
45 – 21	zu	oy nox çenbilçen orrinbat gachez munduan
47v – esk.30 2	zu	Ainbat tenpora dan azquero çabilçadela galdur
49 – ezk. 11	haiek	asco dabilça cureldo desterraduric
49v – ezk. 15	hura-niri	ycara jabilt lau laurenoc bildurez

EKARRI

kokapena	saila	esaldia adizkia
3v – 10	haiek-hura	[...]ik eztacarte
9v – 16	hark-hura	eta bere bidea ecarrela
13 – 3	haiek-hura	euren escuetan ecarten arco bana
13v – 23	haiek-hura	euren guardaçat sey salvaje aldeetati ecartela
15v – esk.41 2	hark-hura	asa dacarren sar[...]ea
26v – ezk. 1	nik-hura	barri onac dacart
27 – esk. 3	nik-hura	escu batean necarrela calçaidu usez errodela
27 – esk. 6	nik-hura	banecarren escu bestean listra onezco darrdoa
28v – albo25 3	hark-hura	onagaz dacarrela aguintea
30v – 23	zuk-hura	nigana manso dacarrqueçula çeure beguicho linda bioc
42 – 9	hark-hura	bertati dacarr guiçonaençat ardurea ta plaguea
43 – ezk. 30	haiek-niri-hura	confesorea becardae lasterretan
43v – ezk. 2	hark-hari-hura	Az chiquirra bioçagaz lecarroela señaletan
50v – esk. 17	hark-haiek	Françiaco armac dacaz goyan eta bean

JAKIN

kokapena	saila	esaldia adizkia
10 – 20	hark-hura	silvero joeala ekian lekuetati
11v – esk.51 1	hark-hura	bada nola cantadu ezpadaqui
12v – albo 1	nik-hura	al baneça daquidan leguez
14v – 14	hark-hura	jaicoac daqui çe aseguin guchi euren bioçetan artu even
14v – M13 1	zuk-hura	cegaiti daquiçun çeurrc ecusita
16v – esk.69 1	nik-hura	baquit jarrico çareana nigana enojadea
17v – 10	nik-hura	erraz daquiquet beti pensamentuan galçaen çaitue

23 – 26	nik-hura	ez daquit neurau nor naxan
28 – esk.11 3	nik-hura	nun eldu ninčan ez nequian
36 – ezk.3 3	nik-hura	banequique goruetan gonearequin atorrea
44v – esk. 13	haiek-hura	eurac daquite curaetan min oria ta gorria
48 – 11	haiek-hura	ez daquienac daoçen abisaduric
27v – 11	zuek-hura	ez daquiçunoc jaquin eguiçu
32v – 11 1	zuk-hura	Pareric eztoçuna al daquiçu

ERABILI

kokapena	saila	esaldia adizkia
28v – 1	hark-hura	Polsea barriz oy berabilque oy diruz adornaduric
30 – esk. 16	hark-ni	damacho baten amore minac narabil desterraduric
32v – 11 4	zuk-ni	agaiti çuc onela narabilçu
33 – 14 6	hark-hura	axeac oy darabil beletea
36 – ezk.3 2	nik-hura	Oy nolaco atrenpea darabildan ancaetan
42 – 19	hark-hura	pensamentua darabilela lecu ascotan fedea
15 – 20	guk-hura	geure açean guc darabilgu mundua catigaturic
15v – ezk. 19	haiek-hura	Ezquerecochan oy darabilte pensamentuac galduric

ENTZUN

kokapena	saila	esaldia adizkia
11v – esk.53 1	hark-hura	Esaçu çegaiti dançuanean jaijo barri danac cantaetea
14 – albo55 3	hark-hura	çerren ez gazteac baldin badançu
23v – 4	zuk-ni	nançuçu çaoz guelduric
26v – ezk. 13	guk-hura	Barria guençuanean
31 – 1 8	zuk - hura	çer deusan çuri aguiçen belarrioc yreçaçu eta dançuçun
31v – albo32 3	hark-hura	bençu munduac ene deadarra
44 – esk. 19	nik-hura	nic berbaoc nençuanean andiro admiraduric

ERATZAN - ETZAN

kokapena	saila	esaldia adizkia
27v – 15 1	hark-hura	a daraçanean bere senarrac bere beso laztanaz estalduric
32 – 4	zuk-ni	aldi bat çeure besoan naraçaçu
32v – 12 8	guk-hura	alcarr daraçagula besoetan
43v – ezk. 21	hark-hura	bere beguiac eraçala (<i>irakurtezina</i>) negarretan
30v – 18	nik-zu	conjuraetan oy eta çaitut oean çauçidenean
45 – 18	ni	catigu nençan lecuac
47v – ezk. 14	hura	juramentu eguiten jagot obian daçan amar

EROAN

kokapena	saila	esaldia adizkia
27 – esk. 14	nik-hura	guiaçat barriz benturea baneroean
27 – esk. 16	nik-hura	neroeala forma onetan bioçau guztiz tristea
28v – 16	hark-hura	çe beroaque lagunic
43v – ezk. 9	hark-hura	guiçon batec or daroa ynoçentea besoetan
43v – ezk. 16	nik-hura	bioza ta az chiquirra daroadala señaletan
43v – esk. 17	nik-haiek	neure beguioc neroeala librrero desplegaduric
46v – ezk. 6	hark-hura	lanternea escuan eroanari
46v – erdi 1	haiek-hura	Asco daroe juduoc alariduric

IPINI

kokapena	saila	esaldia adizkia
12v – albo 4	hark-ni	Bada bere jaunaç ez nafinela
13v – M8 1	zuk-ni	edo nafinçu barrez seculaco
31v – 6 4	zuk-niri-hura	neure bioçau libre jafindaçu
41v – esk. 27	nik-hura	arrcaan barriz erraz dafinquet malla finezco cotea

47 – ezk. 4	haiek-zuri-hura	baldin gura ezpadoçu ez difinçuen tacharic
47v – ezk. 15	zuk-hura	nigan miiric badafinçu ez egoteco exilic
49 – 27	hark-hura	oy dafinela rrepubliquea garbiric

***IO**

kokapena	saila	esaldia adizkia
13v – 8	hark-hura	eta dio joan çateçela confusioco esera
28 – esk.9 1	nik-zuri-hura	nic diosudan berbaetan duda efinten badoçu
31 – 3 2	hark-hura	ençun doçu ene laztana oy bere mandamentuan çer dioan
43 – ezk. 25	zuk-niri-hura	ene jauna çer diostaçu

JIN

kokapena	saila	esaldia adizkia
42v – ezk. 5	hark-niri-hura	jaun çerucoac arren dindala cunplietaco dichea
49 – ezk. 29	hark-guri-hura	jaunac ez digun oyta gaztigu besteric

EMAN

kokapena	saila	esaldia adizkia
42v – ezk. 17	hark-hura	jaun çerucoac oni demala biçi ona ta luçea
46v – ezk. 10	hark-hura	aguindu eusan ez lemala besteric

EUTSI

kokapena	saila	esaldia adizkia
5v – 18	haiek-hari	alcarri escuetaric eustela joan çirean
25 – 18	haiek-hari	ese banatan biçi çirean çefiac eusten alcarri

EZAGUTU

kokapena	saila	esaldia adizkia
10v – 5	haiek-hura	utra manera andian daçauen guztioç alabadu deuscue
32v – 12 3	zuk-ni	çuc bañaçu ni bay nic çu bere

IRUDI

kokapena	saila	esaldia adizkia
13 – 2	hark-hura	çeinçuc çirudien sua aoetati eçarten evela
31v – 4 2	zuk-hura	çeruco yrarrgui çuria dirudiçu

JARRI - EZARRI

kokapena	saila	esaldia adizkia
45 – 30	zu	oy eta çarriz contuan
15v – esk.45 3	zuek-hura	astean beyn baleçarçue aus oça ta brasea

EKIN

kokapena	saila	esaldia adizkia
17 - 24	hark-niri-hura	amorantian lequidanari atera neio beguiac

IDOKI

kokapena	saila	esaldia adizkia
13v – M6 3	zuk-ni	nidoçaçu nagoan penarean

IRAKATSI

kokapena	saila	esaldia adizkia
42 – 11	nik-zuri-hura	ençuçu eta diracasudan ezconduaren dotea

IRTEN

kokapena	saila	esaldia adizkia
51 – ezk. 10	ni	calera nirteanean

Bibliografia

Euskaltzaindia, 1974. *Euskal Gramatika Laburra*. Euskaltzaindia: Bilbo.

Michelena, Luis, 1990². *Fonética Histórica Vasca*, ASJUren gehigarriak. Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.

Etxepare, Beñat. *Linguae Vasconum Primitiae*. On line,
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxepareBPrimitiae.htm> [kontsulta: 2006-12-27]

Perez de Lazarraga, Joanes. *Eskuizkribua*. On line,
<http://klasikoak.armiarma.com/lazarraga/> [kontsulta: 2006-12-27]

Perez de Lazarraga, Joanes. *Eskuizkribua*. On line, <http://lazarraga.gipuzkoakultura.net/>
[kontsulta: 2006-12-27]

Urkizu, Patri, 2004. *Dianea & Koplak*. Erein: Donostia.